Ordiziako Udala

2023ITGB0006

Ordizian, **2023ko maiatzaren 4a**, udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **4 de mayo de 2023** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

Maitane Alvarez Garciandia EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jon Ander Caballero Zubelzu EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Joseba Aranburu Ganzarain EAJ-PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Iñaki Dubreuil Churruca PSE-EE (PSOE)

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA**

Ainhoa Esnaola Zubeldia

**BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1. 2023ko apirilaren 20a ohiko bilkurako akta onartzea.

2. BUZTUNTZA ETXALDEA 7-Birpartzelazio Proiektua. Hasierako onarpena.

3. 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak eskaintzeko deialdia onartzea.

4. Behin betiko onartzea “15 – Txindoki

***ASUNTOS TRATADOS***

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

*1. Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 20 de abril de 2023.*

*2. Aprobación inicial Proyecto de Reparcelación BUZTUNTZA ETXALDEA Nº 7.*

*3. Aprobación de la convocatoria para la concesión de ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes de entre 18 y 35 años.*

*4.Aprobar definitivamente el documento*

Poligonoa" HIEko "15.6" Jarduketa Integratuaren Urbanizatzeko Jarduketa Programa. (2019IPAU0001)

*"Programa de Actuación Urbanizadora de la AI-15.6, del AIU "15. Pº Txindoki". (2019IPAU0001)*

2. Zenbait txosten eta eskaera.

*3. Informes y solicitudes varias.*

3. Galde-eskeak.

*4. Ruegos y preguntas.*

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

Egonkortze prozesuetatik eratorritako deialdiak arautzen dituen oinarrietan atzemandako akats-zuzenketa

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan** **AMAIERA ORDUA: 13:45ean**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Saioa hasi aurretik, presazko izaeraz sartuko den puntuaren bozketa egin da eta bozketa egin ondoren, gai-zerrendan txertatzea adostu da aho batez.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2023ko apirilaren 20ko bilkurako akta onartzea.**

***1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 20 de abril de 2023***

Proposamena

**2023ko apirilaren 20ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 20 de abril de 2023***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 5 (EH-BILDU ORDIZIA 3, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- BUZTUNTZA ETXALDEA 7-Birpartzelazio Proiektua. Hasierako onarpena.**

Proposamena

Lorenzo Castresana Bengoetxeak, Larrea Bizitzak SLren ordezkari gisa, 2022ko azaroaren 17an, Buztuntza Etxaldea 7ko (HIE 8-Bustuntza) birpartzelazio-proiektua aurkeztu zuen, Larrea Bizitzak SLren ordezkaritzan, Andoni Unanuek idatzitako

**2.- Aprobación inicial Proyecto de Reparcelación BUZTUNTZA ETXALDEA Nº 7**

Propuesta

Lorenzo Castresana Bengoetxea, en representación de Larrea Bizitzak SL, ha presentado en fecha de 17 de noviembre de 2022, Proyecto de Reparcelación de Buztuntza Etxaldea nº7, del AIU “8-Buztuntza”, mediante documento redactado

dokumentua atxikiz.

por Andoni Unanue.

Udal-arkitektoak aldeko txostenak eman ditu 2023ko otsailaren 22an eta apirilaren 27an. Era berean, udal-idazkariak aldeko txosten baldintzatua eman zuen 2023ko martxoaren 23an.

El Arquitecto Municipal ha emitido informes favorables en fecha de 22 de febrero y 27 de abril de 2023. Asimismo, la Secretaria municipal emitió informe favorable condicionado en fecha de 23 de marzo de 2023.

2023ko apirilaren 28an, Lorenzo Castresana Bengoetxeak, Larrea Bizitzak SLren ordezkari gisa, Buztuntza Etxaldea 7ko (HIE 8-Buztuntza) birpartzelazio-proiektua Proiektua aurkeztu zuen eskatutako aldaketak txertatuta.

El 28 de abril de 2023, Lorenzo Castresana Bengoetxea, en representación de Larrea Bizitzak SL, ha presentado Proyecto de Reparcelación de Buztuntza Etxaldea nº7, del AIU “8-Buztuntza”, incorporando las modificaciones requeridas.

Hirigintzako kudeaketa-tresnak onartzea Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena da, Alkatetzak 2022/1073 Dekretuaren bidez egindako eskuordetzaz.

La aprobación de los instrumentos de gestión urbanísticas son competencia de la Junta de Gobierno Local por delegación de Alcaldía efectuada mediante Decreto de Alcaldía 2022/1073.

Udal arkitektoak 2023ko otsailaren 22an eta 2023ko apirilaren 27an eta Udal idazkariak 2023ko martxoaren 23an egindako txostenak ikusirik, ondorengo akordioa proposatzea erabaki da:

Vistos los informes del Arquitecto Municipal de fecha de 22 de febrero y 27 de abril de 2023, y el informe de la secretaria Municipal de 23 de marzo de 2023, se acuerda proponer el siguiente:

**AKORDIO PROPOSAMENA**

**PROPUESTA DE ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Hasiera batean onestea Buztuntza Etxaldea 7ko (HIE 8-Buztuntza) Birpartzelazio Proiektuaren espedientea, Andoni Unanue Murguiondok idatzia eta Lorenzo Castresana Bengoetxeak aurkeztua 2023ko apirilaren 28an Larrea Bizitzak SLren ordezkari gisa.

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente el expediente del Proyecto de Reparcelación de Buztuntza Etxaldea nº7, del AIU “8-Buztuntza”, según documento redactado por Andoni Unanue Murguiondo presentado por Lorenzo Castresana Bengoetxea en 28 de abril de 2023 en representación de Larrea Bizitzak S.L.

**BIGARRENA.-** Espedientea hogei egunez jendaurrean jartzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 43. eta 48. artikuluetan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko

**SEGUNDO.-** Someter el expediente a información pública por un plazo de veinte días conforme a lo preceptuado en los artículos 43 y 48 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, en relación con el artículo 10 del Decreto105/2008, de 3 de junio, de



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 10. artikuluan eta Hirigintza Kudeaketari buruzko Erregelamenduaren 101. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y artículos 101 y siguientes del Reglamento de Gestión Urbanística.

**HIRUGARRENA.-** Debekatuta dago partzelazio- eta eraikuntza-lizentziak ematea birpartzelazio-eragiketa administrazio-bidean irmo bihurtu arte, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

**TERCERO.-** Queda prohibido el otorgamiento de licencias de parcelación y edificación hasta la firmeza en vía administrativa de la operación reparcelatoria, conforme a lo preceptuado por el artículo 42.4 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco .

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate Jauna: Garmendiaeneako espedientea da. Xehetasun Azterlana onartu zen baina ez dago oso zehatz bide publikoa non dagoen. Azkenean, jabe bakarraren birpartzelazio proiektua martxan jartzea erabaki da, egoera erregularizatu dadin.

*Sr. Alcalde: Se trata del expediente de Garmendiaenea. El Estudio de Detalle fue aprobado pero no está detallada la ubicación de la vía pública. Finalmente, se ha decidido poner en marcha el proyecto de reparcelación del único propietario para que se regularice la situación.*

Espaloia ere konponduko da eta etxea bota egingo da.

*También se arreglará la acera y se derribará la casa.*

Printzipioz, honekin, hasierako onarpena emango zaio.

*En principio, con ésto se aprobará inicialmente.*

Era berean, adierazi, Buztuntzako zenbait partzelarekin arazoak daudela, izan ere, ez dago argi zer den publikoa eta zer ez. Zentzu honetan, Andoni Unanue gaia arakatzen ibili zen eta Jabetza Erregistroan dokumentu bat aurkitu zuen, notarioarena, zenbait eremuri publikotasunaren inguruko fede publikoa emanaz.

*Asimismo, señalar que existen problemas con algunas parcelas de Buztuntza, ya que no está claro qué es público y qué no. En este sentido, Andoni Unanue estuvo indagando en el tema y encontró en el Registro de la Propiedad un documento, notarial, dando fe pública de la publicidad de varias parcelas.*

Horrela beraz, Andoniri eskatu diogu ea modus operandi hori erabili daitekeen

*Por lo tanto, hemos solicitado a Andoni si se puede utilizar ese modus operandi para inscribir esas parcelas como públicas en el*

eremu horiek publiko gisa inskribatzeko jabetza erregistroan.

*registro de la propiedad.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak**

***3.- Concesión de ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes de entre 18 y 35 años.***

**PROPOSATZEN dut:**

**18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartzea**

2021-2023 epealdirako Ordiziako Udalaren eta bere erakunde autonomo eta menpeko erakundeen dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita daude alokairurako laguntzak, zehazki, 3.6 dirulaguntza lerroan.

Era berean, Ordiziako Udalak bere aurrekontuetan barnean hartzen du Ordiziako udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteei alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea, euren emantzipazioa sustatzeko eta etxeak partekatzeko aukera zabaltzeko herrian.

***PROPONGO:***

***Aprobar la convocatoria para la concesión de ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes de entre 18 y 35 años.***

*Las ayudas al alquiler están previstas en el Plan Estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia y sus organismos autónomos y entes dependientes para el periodo 2021-2023, concretamente en la línea 3.6 de subvenciones.*

*Asimismo, el Ayuntamiento de Ordizia consigna en sus presupuestos una partida destinada a conceder subvenciones para sufragar parte del alquiler a los jóvenes de entre 18 y 35 años que tengan una vivienda en régimen de alquiler para tener su residencia habitual en el municipio de Ordizia, con el fin de fomentar su emancipación y abrir la posibilidad de compartir casas en el municipio.*

Ordiziako osoko bilkurak 2022ko uztailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen onartzea 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko Ordenantza.

*El Pleno del Ayuntamiento de Ordizia, en sesión celebrada el 21 de julio de 2022, acordó aprobar la Ordenanza reguladora de las ayudas al alquiler de vivienda para jóvenes de 18 a 35 años.*

Ordenantza hori 2022ko urriaren 24an, 201. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

*Dicha Ordenanza fue publicada en el BOLETÍN OFICIAL DE GIPUZKOA num. 201 de 24 de octubre de 2022.*

Helburu horretarako 2023ko aurrekontuan 55.000 euroko kopurua aurreikusita dago 1 480.01.152.30.0104 2023 (4510) aurrekontu partidan.

*Para ese fin en el presupuesto de 2023 está previsto un importe de 55.000 euros en la partida presupuestaria 1 480.01.152.30.0104 2023 (4510).*

Hori guztia ikusita, ondorengo akordioa proposatzea erabaki da:

*A la vista de todo ello se acuerda proponer el siguiente:*

**AKORDIO PROPOSAMENA :**

- Ordiziako 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartzea, 2022ko azaroaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte sorturiko gastuei aurre egiteko, atxikitako eranskinaren arabera.
- 55.000,00 euroko gastua baimentzea 1 480.01.152.30.0104 2023 (4510) aurrekontu partidaren kargura, dirulaguntza ematetik eratorritako obligazioei aurre egiteko.
- Dirulaguntza deialdia BDNSn, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki Taulan argitaratzea.

***PROPUESTA DE ACUERDO:***

- *Aprobar la convocatoria de ayudas económicas al alquiler de viviendas para jóvenes de 18 a 35 años de Ordizia, para atender los gastos generados entre el 1 de noviembre de 2022 y el 31 de diciembre de 2023, según anexo adjunto.*
- *Autorizar un gasto de 55.000,00 euros con cargo a la partida presupuestaria 1 480.01.152.30.0104 2023 (4510) para hacer frente a las obligaciones derivadas de la concesión de las subvenciónes.*
- *Publicar la convocatoria de subvenciones en el BDNS, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maitane Alvarez: urrian Ordenantza onartu zen, zenbait ekarpen egin ziren

*Maitane Alvarez: En octubre se aprobó la Ordenanza, se hicieron algunas*

eta orain deialdia onartuko da. Zenbait aldaketa planteatu dira, esaterako, ordainketa sei hilean behin egingo dela, kudeaketa mailan, errezagoa delako.

*aportaciones y ahora se aprobará la convocatoria. Se plantean algunos cambios, como que el pago se hará cada seis meses, porque es más fácil a nivel de gestión,.*

Mila Sukia: eta ezin da hiru hilabeteka egin? Izan ere, dirulaguntza hauek eskatzen dituen jendeak diru arazoak izaten ditu eta, beraz, beharbada hiru hilabeteka aukera hobea litzateke.

*Mila Sukia: ¿Y no se puede hacer cada tres meses? La gente que pide estas subvenciones suele tener problemas de dinero, por lo que quizás cada tres meses sería una mejor opción.*

Maitane Alvarez: lehenengo froga gisa erabiliko ditugu oinarri hauek, izan ere, jada bazegoen partida eta aprobetxatzearren. Hori bai, egin behar diren aldaketa-proposamenak jada proposatzen hastea komeni da, izan ere, ondoren bere izapideak jarraitu behar dira.

*Maitane Alvarez: Lo haremos como una primera prueba porque ya había partida y así poder aprovecharla. Eso sí, conviene proponer ya las propuestas de modificación a realizar, ya que después habrá que seguir la tramitación establecida.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- AKORDIO PROPOSAMENA: Behin betiko onartzea “15 – Txindoki Poligonoa” HIEko “15.6” Jarduketa Integratuaren Urbanizatzeko Jarduketa Programa**

**4.- PROPUESTA DE ACUERDO: Aprobar definitivamente el documento “Programa de Actuación Urbanizadora de la AI-15.6, del AIU “15. Pº Txindoki”.”**

**Proposamena**

**Propuesta**

**Lehenengoa.-** 2019ko otsailaren 15ean, Marco Segurolak, Orkli S.Coop. enpresaren ordezkari gisa, *“Programa de Actuación Urbanizadora de la AI-15.6 (A.I.U. 15 – Pº Txindoki), de Ordizia*

***Primero.-** Marco Segurola, en representación de Orkli S.Coop. presentó, en fecha de 15 de febrero de 2019 el documento denominado “Programa de Actuación Urbanizadora de la AI-15.6*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

*(Gipuzkoa)”.*izeneko dokumentua aurkeztu zuen.

*(A.I.U. 15 – Pº Txindoki), de Ordizia (Gipuzkoa)”.*

**Bigarrena.-** Udal-arkitektoak aldeko txostena eman zuen 2019ko martxoaren 4an dokumentuaren hasierako onarpenari buruz, ondorengoa ohartaraziz, “*Se encuentra en tramitación la Modificación Puntual de la NNSS de Ordizia relativas a la U.E. 15.6 del A.I. U. 15 Txindoki. Dicho documento cuenta con aprobación inicial. Hasta que esa modificación no sea aprobada definitivamente no se podrá aprobar definitivamente el PAU*”. Urbanizatzeko jarduketa-programaren aldeko txostena egin zuen Udaleko Idazkariak 2022ko martxoaren 12an.

***Segundo.-** El Arquitecto Municipal emitió informe favorable en relación con la aprobación inicial del documento en fecha de 4 de marzo de 2019, advirtiendo, sin embargo, que, “Se encuentra en tramitación la Modificación Puntual de la NNSS de Ordizia relativas a la U.E. 15.6 del A.I. U. 15 Txindoki. Dicho documento cuenta con aprobación inicial. Hasta que esa modificación no sea aprobada definitivamente no se podrá aprobar definitivamente el PAU”. El Programa de Actuación Urbanizadora también fue informado favorablemente por la Secretaría del Ayuntamiento en fecha de 12 de marzo de 2022.*

**Hirugarrena.-** Ordiziako Udalak, Alkatetzaren 2019ko martxoaren 27ko 378. Dekretuaren bidez, hasierako onarpena eman zion Ordiziako 15. Txindoki pasealekuko hirigintzako esku-hartze eremuko AI-15.6 jarduketa integratua urbanizatzeko jarduketa-programari. Orkli S. Coop. enpresak sustatu zuen jarduketa hori, eta LKS Ingeniería S. Coop. sozietateak idatzi. Hasierako onarpen hori, urbanizatzeko jarduketa-programaren edukien funtsezko elementuen laburpenarekin batera, jendaurrean jarri zen, 2019ko apirilaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (68. zk.) argitaratuta. Halaber, hogei egun balioduneko epea eman zen interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe hori igarota, udaleko idazkariak ziurtagiria eman zuen, alegaziorik egin ez zela egiaztatzeko.

***Tercero.-** Ayuntamiento de Ordizia, mediante Decreto de Alcaldía nº 378 de fecha 27 de marzo de 2019, aprobó inicialmente el Programa de Actuación Urbanizadora de la Actuación Integrada AI-15.6 del Área de Intervención Urbanística “15. Pº Txindoki” de Ordizia, promovido por la empresa Orkli S. Coop. y redactado por LKS Ingeniería S. Coop. Dicha aprobación inicial, junto con el extracto de los elementos esenciales de los contenidos del programa de actuación urbanizadora, fue sometida a información pública mediante su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº68, de 9 de abril de 2019. Otorgando, asimismo, un plazo de veinte días hábiles para que los interesados pudiesen presentar alegaciones. Transcurrido el citado plazo, fue emitido certificado por la Secretaria del Ayuntamiento constatando que no se habían producido alegaciones.*

**Laugarrena.-** Marco Segurolak, Orkli S.Coop. enpresaren ordezkari gisa, *“PROGRAMA DE ACTUACIÓN URBANIZADORA (PAU) DE LA U.E. 15-6 DEL A.I.U. 15 - Pº TXINDOKI:*

***Cuarto.-** Marco Segurola, en representación de Orkli S.Coop. presentó, en fecha 23 de mayo de 2022, el “PROGRAMA DE ACTUACIÓN URBANIZADORA (PAU) DE LA U.E. 15-6*

*DOCUMENTO PARA APROBACIÓN DEFINITIVA”* izeneko dokumentua aurkeztu zuen.

*DEL A.I.U. 15 - Pº TXINDOKI: DOCUMENTO PARA APROBACIÓN DEFINITIVA”.*

**Bosgarrena.-** Ordiziako Udalak, 2023ko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkuran (GAO, 57. zk., 2023ko martxoaren 23koa), erabaki zuen, besteak beste, behin betiko onartzea Ordiziako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala, HIE 15-Txindokiko 15.6 EUari dagokionez. Aldaketa horrek, besteak beste, erreferentziako jarduketa integratuko unitatearen antolamendu xehatua jasotzen du.

***Quinto.-*** *Ayuntamiento de Ordizia, en sesión plenaria celebrada el 26 de enero de 2023 (BOG nº 57 de 23 de marzo de 2023), adoptó, entre otros, el acuerdo de aprobar definitivamente la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Ordizia, relativas a la U.E. 15.6 del A.I.U. 15-Txindoki. Dicha modificación recoge, entre otros aspectos, la ordenación pormenorizada de la unidad de actuación integrada de referencia.*

**Seigarrena.-** Dagokion antolamendua onartu ondoren, eta 2/2006 Legearen 156.8 artikuluan xedatutakoa betez, Marcos Segurolak, Orkli S.Coop. enpresaren ordezkaritzan, Urbanizatzeko Jarduketa Programa behin betiko onartzeko dokumentua aurkeztu zuen 2023ko apirilaren 5ean.

***Sexto.-*** *Una vez aprobada la ordenación correspondiente, y dando cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 156.8 de la Ley 2/2006, Marcos Segurola, en representación de Orkli S.Coop., presentó, en fecha 5 de abril de 2023, el documento para la aprobación definitiva del Programa de Actuación Urbanizadora.*

**Zazpigarrena.-** Udal Arkitektoak Urbaizatzeko Jarduketa Programaren aldeko txostena igorri du 2023ko apirilaren 18an. Era berean, Udal Idazkariak ere aldeko txostena igorri du 2023ko apirilaren 28an.

***Séptimo.-*** *La Arquitecta Municipal ha emitido informe favorable al Programa de Actuación Urbanizadora el 18 de abril de 2023. Asimismo, la Secretaria Municipal ha emitido informe favorable el 28 de abril de 2023.*

Hori horrela, Tokiko Gobernu Batzordeari ondorengoa helarazten diot,

*Por todo ello, traslado a la Junta de Gobierno Local la siguiente,*

## AKORDIO PROPOSAMENA

## *PROPUESTA DE ACUERDO*

**LEHENENGOA.-** Behin betiko onartzea “15 – Txindoki Poligonoa” HIEko “15.6” Jarduketa Integratuaren Urbanizatzeko Jarduketa Programa.

***PRIMERO.-*** *Aprobar definitivamente el documento “Programa de Actuación Urbanizadora de la AI-15.6, del AIU “15. Pº Txindoki”.”*

**BIGARRENA.-** Behin betiko onarpenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, edukiaren laburpen bat izango duena, 2/2006 Legearen 156.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

***SEGUNDO.-*** *Publicar el anuncio de aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, que contendrá un extracto de su contenido, de conformidad con lo previsto en el artículo 156.5 de la Ley 2/2006.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau eragindako eskubideen titularrei jakinaraztea.

***TERCERO.-*** *Notificar esta resolución a los titulares de los derechos afectados.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate Jauna: jada onartu zen arau subsidiarioen onarpena eta orain PAUari behin betiko onarpena eman behar zaio. Aurreko legegintzalditik datorren kontua da.

*Sr. Alcalde: ya se aprobó la aprobación de las NNSS y ahora hay que dar la aprobación definitiva a la PAU. Es una cuestión que viene de la anterior legislatura*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

**5. EGONKORTZE PROZESUETATIK ERATORRITAKO DEIALDIAK ARAUTZEN DITUEN OINARRIETAN ATZEMANDAKO AKATS-ZUZENKETA**

**5. CORRECCIÓN DE ERRORES DE LAS BASES REGULADORAS DE LAS CONVOCATORIAS DE ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO**

**AURREKARIAK**

***ANTECEDENTES***

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 16an egindako ezohiko bilkuran, abenduaren 28ko 20/2021 Legearekin lotutako enplegu publikoaren eskaintza onartu zuen.

*La Junta de Gobierno Local en la sesión extraordinaria celebrada el día 16 de mayo de 2022 acordó la Oferta de Empleo Público derivada de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre.*

Hori horrela, eta beronen egikaritzan, 2022ko abenduaren 16ko 2022/1527 Alkatetza Dekretu bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozesuen oinarri eta deialdiak onartu ziren.

*En este sentido, y en ejecución de la misma, con fecha de 16 de diciembre de 2022, mediante Decreto de Alcaldía 2022/1527, se procedió a la aprobación de las bases y convocatorias derivados de los procesos de estabilización de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre.*

Horien gain, 2023ko urtarrilaren 31an 2023/0125 Dekretu bidez, hutsen zuzenketa egin zen, izan ere, transkripzio akatsa atzeman zen.

*Sobre dichas bases, con fecha de 31 de enero de 2023, se emitió el Decreto 2023/0125, procediendo al error detectado en la transcripción de las mismas.*

Era berean, kontuan hartu behar dugu, 2023ko maiatzaren 3ko datarekin, Giza Baliabideen eta Antolaketaren Administrazio Orokorreko Teknikariak, txosten juridikoa igorri duela, zeinetan adierazten den, aurrez aipatutako Oinarrietan akatsa atzeman dela.

*Del mismo modo, debemos tener en cuenta que con fecha de 3 de mayo de 2023 el Técnico de Administración General de Recursos Humanos y Organización ha emitido informe jurídico, advirtiendo del error detectado en las Bases antes mencionadas.*

Zentzu honetan, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 109.2 artikuluak ezartzen du, Administrazio publikoek, edozein unetan, euren egintza administratiboetan atzemandako akatsak zuzendu ditzaketela.

*En este sentido, el artículo 109.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, permite a las administraciones públicas, en cualquier momento, rectificar los errores detectados en sus actos administrativos.*

**Hau guztia kontuan hartuta, hurrengo AKORDIO PROPOSAMENA egiten zaio Osoko Bilkurari**

*Teniendo en cuenta todo lo anterior, se eleva al Pleno la siguiente* **PROPUESTA DE ACUERDO**

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

***PROPUESTA DE ACUERDO:***

1.- 20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziko administrazio orokorreko eskalako azpieskala teknikoari dagokionaren deialdiko oinarri espezifikoen I. eranskineko akatsak zuzentzea,

*1-. Proceder a la corrección de errores del anexo I de las bases específicas de la convocatoria del proceso especial de estabilización de empleo temporal de larga duración derivado del artículo 2.1 de la Ley 20/2021, correspondiente a la subescala técnica de la escala administración general.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

2-. Akats-zuzenketaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

*2-. Publicar el anuncio de corrección de errores en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate Jauna: aurreko teknikariak gaitegia landuta utzi zuen. Nolanahi ere, Udalean bertan egin behar ditugun lehiaketa-oposaketa bidezko gainerako prozesuetan, batean salbu, ez da Konstituzioaren gaia sartu eta horregatik kenduko da gaitegitik. Zentzu honetan, Estabilizazioko Legeak bide ematen du gaitegia murrizteko.

*Señor alcalde: la anterior técnico dejó el temario trabajado. En cualquier caso, en el resto de procesos de concurso-oposición que tenemos que realizar en el propio Ayuntamiento, salvo en uno, no se ha incluido el tema de la Constitución y por ésto se retirará del temario. En este sentido, la Ley de Estabilización permite reducir el temario.*

Mila Sukia: baina zergatik kentzen da? Eztabaida politikoa da ala gaitegia murrizteagatik? Erabaki politikoa bada, beharbada, abstenitu egingo naiz. Ez diot zentzurik ikusten eta, aldiz, denei gaitegia errazteagatik bada, ondo iruditzen zait.

*Mila Sukia: ¿Pero por qué se quita? ¿Es un debate político o es por reducir el temario? Si es una decisión política, igual me abstengo. No le veo ningún sentido y, en cambio, si es por facilitar el temario a todos, me parece bien.*

Maitane Alvarez: justiziagatik da. Besteei ez zaie eskatu eta honi bai? Denei ala inori ez.

*Maitane Alvarez: Es por justicia. ¿Al resto no se les ha pedido y a éste sí? A todos o a nadie.*

Mila Sukia: ados.

*Mila Sukia: De acuerdo.*

Iñaki Dubreuil: ni abstenitu egingo naiz.

*Iñaki Dubreuil: Yo me abstendré.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 5 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 1 PSE-EE (PSOE)

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

**7.- Zenbait txosten eta eskaera**

Alkate Jauna: kontuhartzailearekin egon naiz eta aurrekontuaren onarpenerako txostena jada itxi du. Asmoa da hurrengo astean informazio batzordea deitzea eta ziurrenik 16an ez-ohiko Osoko Bilkura egitea aurrekontua onartzeko, 18:00etan.

*Señor alcalde: he estado con la interventora y me ha comunicado que ya ha cerrado el informe de aprobación del presupuesto. La idea es convocar la próxima semana la comisión informativa y celebrar probablemente el 16 un Pleno extraordinario, a las 6 de la tarde para aprobar el presupuesto.*

Maitane Alvarez: nik egun horretan Euskararen Mahaia daukat. Agian beste dataren bat adostu beharko litzateke

*Maitane Alvarez: Yo ese día tengo la Mesa de Euskera. Quizá habría que acordar alguna otra fecha.*

Alkate Jauna: hitz egingo dugu.

*Sr.Alcalde. Ya hablaremos.*

Mila Sukia: zerbitzu delegaritzan ez daukat argi zer den eskatzen dena 17.3 puntuan.

*Mila Sukia: No veo claro qué es lo que se solicita en el punto 17.3 de la Delegación de Servicios.*

Maitane Alvarez: Lurkidek urtero eskatzen ditu datu horiek.

*Maitane Alvarez: LURKIDE pide esos datos todos los años.*

Mila Sukia: zerbitzuen delegaritzan, apirilak 3koan, zer gertatu zen Jakintza Ikastolan harriekin?

Mila Sukia: respecto a lo recogido en acta de Delegación de Servicios de fecha 3 de abril, qué es lo que pasó con las piedras en Jakintza Ikastola?

Maitane Alvarez: nerabeen arteko istorio bat izan zen, Jakintza eta Institutuko ikasleen artekoa. Udaltzaingoa eta Ertzaintza pertsonatu zen eta baita gurasoak ere eta, azkenean, intermediazioaren bidez konpondu zen. Beraz, printzipioz ez dago arazorik. Gertaera puntuala izan zen.

*Maitane Alvarez: Fue una historia entre adolescentes, entre alumnos de Jakintza e Instituto. Se personó la Policía Municipal y la Ertzaintza, así como los padres y finalmente se solucionó a través de la intermediación. Por lo tanto, en principio no hay problema. Fue un hecho puntual.*

Mila Sukia: Ongizateko delegaritzan 6. puntua zer da? Alegia, aniztasun lan-postua funtzionario bidez estaltzearen ingurukoa.

*Mila Sukia: ¿Qué quiere decir el punto 6 en la Delegación de Bienestar? Es decir, sobre la cobertura funcionarial del puesto de trabajo de diversidad.*

Alkate Jauna: Egun, Ainara IZANekin

daukagu kontratatuta. Lizitazioa prestatzen ari dira eta zer egin behar den pentsatu behar da. Egoera nahiko konplexua da.

*Sr. Alcalde:hoy en día, tenemos contratada a Ainara con IZAN. Están preparando la licitación, pero hay que pensar qué hacer. En una situación compleja.*

Bai ikusten dugu Ordizia bezalako herri batek lan-postu hori behar duela eta horregatik planteatu zen Programa bidez norbait ekartzea, batik bat, Harrera Planaren inplantaziorako eta ondoren ikusi ea nolako lan-postua behar den Lan Postuen Zerrendan sartzeko.

*Sí vemos que un pueblo como Ordizia necesita este puesto de trabajo y por eso se planteó contatar a alguien a través del Programa, sobre todo, para la implantación del Plan de Acogida y posteriormente analizar qué tipo de puesto de trabajo se necesita para incluirlo en la Lista de Puestos de Trabajo.*

Era berean, Auzitegien arazoa ere egon liteke egun dagoen langilea lan-jurisdikziora joango balitz.

*También podría existir un problema de Tribunales si el trabajador que actualmente cubre la plaza acudiera a la jurisdicción laboral.*

Iñaki Dubreuil: dena den, hau dena egin aurretik kontuan hartu behar da Udalak dirulaguntza jasotzen duela eta beraz, agian, aldaketa hauek egingo balira dirulaguntza hori galduko genukeela eta ondorioz, ez litzatekeela efizientea Udalarentzat.

*Iñaki Dubreuil: No obstante, antes de hacer todo esto, hay que tener en cuenta que el Ayuntamiento recibe una subvención y que por lo tanto, si se hicieran estas modificaciones quizás perderíamos esa subvención y por lo tanto no sería eficiente para el Ayuntamiento.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

***8.- Ruegos y preguntas.***

Ez da izan

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*

| | |
|---|---|
| **Sinatzaileak** Firmantes | **ALKATEAK /** EL ALCALDE<br>Adur Ezenarro Agirre<br>**IDAZKARIA /** SECRETARIA |



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

| | |
|---|---|
| | Ainhoa Esnaola Zubeldia |
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAEZKNT.9Ass |



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus